

OLERKIA NUN SORTZEN ETE-DA?

Biotzaren eragiñetik ala buruaren oldozmenetan sortzen ete-da olerkia? Olerkiaren sortzeaz bai biotzak eta bai buruak, argiago esan-da, gogoak eta burutapenak dituezan artu-emionak azaltzea ez da erreza, naiz-ta sarritan, olerkariaren buruak eta biotzak biak batera edo erdi batera olormenean jardun izan.

Gizonaren gogoak, batez bere benetako olerkariarenak, zelaizabal, zadortsu ta sakonak ditu eta olerkariok dogun berarizko nabaipenak lo-zorroan lez irauten dau. Izadiaren ikutuak, egiñenen batek edo beste zeozek iratzarri dagianarte. Entzundako edo irakurritako berbatxuen bat izaten da, sarritan, lo-zorroatik olermena bizkortzen dauana; orduan, senetik urtenda lez jartzen da olerkaria, bere izate guztia, buru ta biotz, dardara bizian jarririk. Bere barru minberan olermenaren eragiñez sortu izan yakozan esakera ta itz dotorenak azaldu gurea sortzen yako ta orixe dogu benetako olerkariaren sorrerea.

Bere konkortasunean amildurik, biotzaren eragiñeri jarraitzen dautse eta ona emen, olerkariaren guna. Eta, gero, buruaren egitekoa izan oi da: txarto deritxozan esakera edo itzak zuzendu, bearrezko zeozer geitu, erbatzak kendu eta igierrea, oski-degoa taitua ta abar zuzen ezarri.

Olerkari ona izateko burua ta biotza (gogoa ta adimena) biak erabilli bear dira, ba: biotza nabaikizunak sortzeko eta burua aren, biotzaren, etorria atontzeko.

Olangoxeak izan oi dira, ba, benetako olerkiak: Izadi edo beste zeozeren eragiñez gogo-zelaietan sortzen direanak.

Etorriaz zein ekarriaz, biekaz egiten direala olerkiak idatzi eban Orixe'k. Egia dogu izan au; baiña benetako olerkiak etorriaz, inspiraziñoaz, egiten direanak doguz, nire ustez. Gogoan sortzen direan olerkiak benetakoak izan oi dira eta biotzaren aririk minbereenak dardaratu daroez; eta besteak, ekarriaren *semeak*, ostera, naiz-ta ondoen idatziak izan, legorrak izan oi dira, geienetan. Ekiñaren-ekiñez ekarriaz be iñoz biztu oi da olermena baina indarrez biztutako olermenak ez darpa berezko etorriak lango igalirik, fruturik, emon. Olerki biozkoieri dara-goiot, lirikoeri, onexek dira izan bere benetako olerkiak-eta. Edestizkoak-eta egiteko ez da bear olermenaren eragiñik, arean.

Esan dodanez, Izadiari adi gagozala, edo jazokizun edo itzen baten eragiñak sortzen dauskuzanak doguz, ba, benetako olerkiak.

Aldi onetan, nire ustez, benetako olerkariz urri gara Euskal-lerrian. Norbaitzuk uste-edo dabe, diru askoko sarien bat irabazten dauana benetako olerkaria izaten dala. Oraingo sariketetan ba-dakigu zelango olerkiak izaten direan sarituak, geienetan beintzat. Eta, baita, nortzuk epaituak izaten direan bere. Bizkaiera, barriz, sariketetatik guztiz baztertua daukaskue; eta zenbat eta euskera traketsagoa lorriñagoa ta gaiztoagoa izan, arrera obea.

Politika zikiñez buruak beroturik eta euskal-senik ez dabena baiño ezin ontzat artu daikeez, ba, orain agertzen direan olerkirik geienak. Olerki ez direala, itz askatuak be txarrak dira ba-ta: Ez igierarik, ez oskiderik, ez biotz-ondorik ez gatzik ez berakatzik; edozer eta edozelan idatzi ta idatzi egin eta kittu. Naiz-ta oskide ta neurri bagakoa izan, biotz-ondoa ta igiorea gixienez be bear ditu olerkiak. Ez neurri barik edozelan idatzi. Eta, ganera, edozer gai ez da izaten egokia bertsu askatuz idazteko.

Benetako olerkariak, nire ustez, bere biotzari jaramon egin bear

dautso eta ez besteen asmueri jarraitu. Olerkari bakotxak bere jokerea dau eta norbera baztertu ta inoren asmu ta jokerak alakatzen ba-diardu, olerkari ona ez daiteke izan. Bakotxak bere jokera, biozkada, ames eta burutapeneri jarrai bearra dogu, ba, geure-geureak izango direan benetako olerkiak azaleratzeko.

Gure berbetearantzako aldi goibeltsu onetan politika arrotzez buruak berotuta diarduenak ez dabe ezagutzen benetako euskal-olerkaririk, antza. Bein bere ez dabez aittatzen, beintzat, ez Zaitegi, ez Onaindia, ez Muniategi'tar Sabin; ez Etxaniz, ez Kerexeta, ez Erkiaga, ez Lauaxeta ez beste egiazko olerkaririk. Aresti gora ta Aresti bera, diardue, ba, beti, gurean beste olerkaririk ezpa'litzan.

Zaparrada asko ateraten dauna ez daroa izan ixilik diarduenak baiño obeagoa. Aresti'k (bere gogai zoroak gora-bera Jainkoak zeruetan beuko) euskera-erdera lorrin eta kaltegarriaren artean olermenik ez eukanik ez diñot; baiña, bai, arek aztertu ziztuan Bilbo-ertzetako satsak, simaurrak, azaltzekotan be, olerkiz baiño itz askatuz azaltzeko egokiagoak zireala.

Guere euskera lorrindu ez dagigun Aresti'renik ez irakurteko aolkua egin ondoren, «Era un poeta en castellano, pero no en euskera» idatzi izan dau Oskillaso'k *El libro negro del euskera-n*.

Izadiaren edertasun ereitsu ta jazoeren edo itzen baten ikutuak gogoaren barru-barruan dogun olermenaren ari mengal baizen minberak zirkinduz barru eskutuen sakonetan sortzen da, ba, benetako olerkia; eta, ondoren, zentzun eta buruaz erbatzak kenduz atondu, irakurleen entzumenetara egoki ta gozo eldu daiten.

Aurre-Apr aiz